

ZM

ZORROTZ MORROTZ

45. ZEKUA 2017ko MAIATZA

GOTZON MUJICA

KOMEDIANTEA

MIKEL DEUNA ABESBATZA. 25 URTE

Allianz



Menfer Insurance Group S.L.

Geltoki bidea 1, behea
48013 Zorrotza

Tel. 946551773
Sakelakoa. 691218922

E-mail: valerio.merino@allianzmed.es

3 Volkswagen Polo eta 30 iPhone 7 zozketatzen ditugu

Izena eman
kutxabankorain.eus
webgunean, gainditu
proposatutako erronkak
eta irabazi zozketetan
parte hartzeko aukerak.

Sustapenaren oinarriak hemen:

www.kutxabankorain.eus.

Sustapenaren azken eguna:

2017ko abenduaren 31.

Zozketaren egunean adinez nagusiak eta Kutxabankeko kontu baten edo indarrean dagoen txartel baten titularrak direnentzat edo, horrelakorik ezean, zozketaren egunean Kutxabanken diru-sarrerara bat helbideratuta dutenentzat.

Kutxabank, SA, Kale Nagusia, 30-32, 48009 Bilbo, IFK: A95653077. Bizkaiko Merkataritza Erregistroan inskribatuta. 5226 Tomoa, 0 Liburua, BI-58729 Orria, 1 Folioa, 1. Inskripzioa.



kutxabank
ORAIN

B

XXIX. edizioa

2 0 1 7



B
Bilbao
2017-2018

Bilbon
euskaraz

www.bilbaoeuskaraz.eus



GU ERE
BERTSOTAN



Zorrotzako Heziketa Proiektuaren hastapenak

Azkenotan, auzo mugimendua buru belarri dabil datorren ikasturteari begira, Zorrotzako Heziketa Proiektua izango dena eraikitzen. Egitasmo horrek Haurreskola, Lehen Hezkuntzako bi zentroak eta Institutua barne hartuko ditu eta bere helburua auzoko haur eta gazteen heziketa hobetzea da, auzoko errealitatea abiapuntutzat harturik. Horrek auzoaren eta hezkuntza zentroyen arteko lotura sendotzea eta biek ere elkar elikatzea ekarriko du nahitaez.

Bestetik, FEVEko trenbide eta geltokia lurperatzeko lanean jarraitzen dugu eta Osasun Zentroaren gabeziak aztertzen eta salatzen dihardugu. Egunotan Alkatearekin bilera bat izango dugu, Barinaga auzoko egoeraren gainean gure planteamenduak azaltzeko.

Azkenik, 20. Korrikak auzoan izandako arrakasta goraiatzeko dugu. Hau guztia eta beste hainbat gauza dira esku artean ditugunak. Hurrengoan, gehiago.



HARPIDEDUN IZAN ZAITEZ!!

ZM zure e-postan
jasotzeko, bidali mezu
elektroniko bat
zmorrotz@gmail.com
helbide elektronikora,
gaiaren laukian
"harpidetza" jarritz



Zorrotzako kultur aldzikaria
45. zenbakia. 2017ko maiatza

Argitaratzen du:

Zorrotzako Euskal Txokoa

AEK euskaltegia

Zalbidea, 7 behea

48013. Zorrotza. Bilbo

Emaila: zmorrotz@gmail.com

 facebook.com/ZorrotzMorrotz

 [@zorrotzmorrotz](https://twitter.com/zorrotzmorrotz)

Koordinazioa: Aitor Marín

Diseinua eta maketazioa:

amc diseinua

Erredakzioa:

- Ibai Barrios
- Ainoa García
- Igor Gutiérrez
- Haizea Olleta
- Aitor Marín
- Naroa Peña
- Iratze Pérez
- Zuriñe Vila
- Lorna Yáñez

Zuzenketak: Iñigo

Laguntzaileak:

- Karlos Rodríguez
- Manu Cobo
- Asier Urkiza

Inprimaketa: Arin Graf



Zorrotz Morrotz
aldizkariak
Bilboko
udalaren
dirulaguntza
jasotzen du



cafe**txinbo**

Espezialitateak:

Tapak eta errazioak
Kanapeak



Abaro estrata, 10
Tel. 94 608 85 74



Taramona

ERAKUSTOKIA ETA SALMENTAK

Zorrotza-Kastrexana errep. 45-57-75
Telefonoa: 94 442 44 68

TAILERRAK ETA ZERBITZUAK

Zorrotza-Kastrexana errep. 75
Telefonoa: 94 442 17 12



Tipi-tapa tipi-tapa, Korrika!

Bi urterik behin antolatzen den euskararen aldeko lasterketa erraldoiak Zorrotza zeharkatu zuen berriro ere. Auzotarren erantzuna ez zen nolanahikoa izan eta jendetzak itxaron zuen Korrikaren etorrera, lasterketan pozik eta gogoz parte hartzeko.

Aitor Marin

1980an Euskal Herria Oñatitik Bilbora zeharkatu zuen lehen Korrika antolatu zenetik, euskararen alde antolatzen den ekitaldirik jendetsuena eta garrantzitsuenetakoa da. 20. korrika burutu da aurtén. Otxandiotik abiatuta Iruñeara heldu arte, eskuz esku eta kilometro kilometro milaka korrikalarien artean pasatu da mezua gordetzen zuen lekukoa.

Zorrotzarron eskuetatik ere pasatu zen lekukoa, nola ez! Apirilaren 6an heldu zen gura Korrika Alonsotegitik. Auzotik ibilbide luzea egin ondoren, Zazpi Landan gora agurtu genuen. Ez zen ibilbiderik erosoena izan, argi



dago, baina ez dago Zorrotzako euskaltzaleak gogogabetzeko aldaparik! Askabide kultur elkarteak izan zen lekukoa jaso zuen lehenengoa Fray Juan kaleko errotondaren parean. Institutuak hartu zuen geroago. Txinbotarrak konpartsaren ondoren, Zurigorri Athletic zaletuen elkartearen txanda izan zen, eta Gaztetxearen eskuetatik pasa eta gero, Zorrotza Futbol Taldekoen jokalariek pasa zioten lekukoa Altamiran zain zeuden lagunei.

Mila esker modu batean edo bestean laguntza eman duzuen guztioi eta Gora Zorrotzako euskaltzaleak!



Korrika ospatzeko ekitaldi ugari auzoan

Igor Gutiérrez

Ohi denez, Zorrotzan Korrikari ongi etorria emateko hainbat jarduera antolatu dituzte auzoko eragileek. Apirilaren 1ean, Gure Lurrak Korrikarako petoa egiteko tailerra eta gymkana egin zituen haurrentzat. Ondoren, Ibai-Arte taldeak dantza agerraldia eskaini zuen. Eguerdian, Xilipurdi eta Golokako kale ikuskizuna abiatu zen gure kaleetan zehar, auzokideei Korrikaren berri emateko. Eta, handik gutxira, herri bazkaria euskaltegian. Euri jasak eguna trakestu zuen arren, oro har giro ederra egon zen.

Bestalde, apirilaren 4an, Euskal Txokoak ba-bestuta, "Piraten mundua" emanaldia izan



zen Zazpi Landa ikastetxean eta 7an Fray Juanen. 5ean, auzoko hiru eskolak, alegia, Zazpi Landa, Fray Juan eta Institutua, batu egin ziren Korrika Txikia ospatzeko. Goitik beherako ibilbideari jarraituz, lasterketa institutuan bukatu zen, ikasle guztiek batera egin-dako dantzarekin. Ongi etorri, Korrika!

Kabina mugikor batek usainak eta kutsadura-igortzeak neurtuko ditu

Karlos Rodríguez

Iazko azaroko batzarrari segida emanez, Auzo Elkarreak bigarren batzar batera deitu zuen martxoan Zorrotzako airearen kalitatearen arazoaz informatzeko. Bilboko zinegotzi Alfonso Gilek eta Inés Ibáñezek bertaratuen kezka, kexak eta haserrea entzun ahal izan zituzten zuzenean.

Besteak beste, zinegotziek iragarri ziguten apirilaren aurrera kabina mugikor bat kokatuko dela auzoaren erdialdean usain eta igortzeak neurtzeko; eta udazkenean, Eusko Jaurlaritzaren ordezkari batek lagunduta, horren emaitzen berri emango digutela.

Bestetik, TECNALIA enpresak egindako txosten baten arabera, esan ziguten kutsadura neurtzen duten Bilboko beste kabinen emaitzak araudiak ezarrita dituen parametroen artean kokatzen direla.

SADER-i dagokionez, zinegotziek aitortu zituzten ez dakitela oraindik Zorrotzatiko lekualdatzea noiz izango den.



Auzo-etxeko hitzaldi gelan egindako batzarra

**GURE LUXUA ESKURA
BETAURREKO GRADUATUETAN**

2x1

**2 ERAMAN
1 ORDAINDU**

C/ ESTRADA DE ABARO, 5 | 944 27 40 80

ibarraluxury
OFICINA



Osakidetzan murrizketen aurkako protesta

Auzo Elkarteak eta Zorrotzuz plataformak deituta, hainbat auzokidek Osakidetzak Aste Sainduko oporraldian izatekoak ziren murrizketen aurka protesta-elkarretaratzea burutu zuten Osasun Zentroaren aurrean apirilaren 4an, Gabonetako oporraldian gertatu zen bezala kezkatuta, mediku gutxiago eta pediatria zerbitzurik gabe gelditzeko arduratuta. Hurrengo egunetan Osasun Zentroko zuzendariaren email bat jaso zuen Auzo Elkarteak zerbitzuak %100ean mantenduko zirela ziurtatuz. Mobilizazioaren eraginez akaso?

VIII. Clown Zorrotza erakustaldia eta Zine Zorrotza programak maiatzean gurean

Clown erakustaldiak ospe handiko bost konpainiaren partaidetza izango du: Euskal Herriko bi, Rojo Telón eta Teatro a la boina, Larri Pompier, Circolabile konpainia italiarra eta Cristina Sole katalana.

Zorrotz Morrotz

Programazioa maiatzaren 3an hasiko da, arratsaldeko 18:00etatik aurrera, Zorrotzako Udal Liburutegian Larri Pompier clownak eskainiko duen familia osoarentzako saio bereziarekin. Egun berean, Zinebiklub saioa egongo da Zorrotzako Udaltegian, arratsaldeko 19:30etik aurrera, Bilboko ZINEBI Nazioarteko Jaialditik igaro diren umorezko film laburren emanaldiarekin. Maiatz osoan, ostegunero eta leku eta ordu berean izango du saioa Zine Zorrotza programak, baita hilaren 17an (eguaztana) eta 26an (barikua) ere. Bi egun hauetan, saioa arratsaldeko 18:00etan hasiko da. Aipatzekoa da maiatzaren 11n “Nosotras mujeres de Euskalduna” dokumentalaren proiektzioa, Larraitx Zuazo zuzendariarekin solasaldia ere egongo baita.

Barikuan (hilak 5), programak saio bikoitza jasoko du arratsaldeko 18:30ean eta 19:30ean, Azoka Parkean. Lehenengo Rojo Telón taldea etorriko da, helduentzako “Haiek naiz” lanarekin. Lan hori, hiru ema-

kumeren bidaia emozional barnerakoa eta dibertigarria da. Ondoren, Teatro a la boina taldearen txanda izango da, “I’m a real artist” ikuskizunarekin, hori ere helduei zuzendutakoa.

Clown Zorrotzaren aurtengo edizioa zapa-tuan (hilak 6) amaituko da. Arratsaldeko 18:30ean Azoka Plazan hasiko da Circolabile konpainia italiarraren “O like... Peanut” ikuskizuna. 19:30etik aurrera Cristina Sole clown katalanaren txanda izango da, “Wet foot” ikuskizunarekin. Bi ikuskizunak oso desberdinak izango dira, baina bien ezaugarriak umorea eta familia osoari zuzenduta daudela izango dira.

Clown Zorrotza egitaraua, Kultura Sailak diseinatutako “Kultura Kalez Kale” kultur programazioaren barruan sartzen da. Ekimen horrek kaleko musika eta arte eszenikoko 150 ikuskizun baino gehiago eta beste hainbat jarduera eramango ditu hiriko auzoetara maiatzan eta ekainean.

Zorrozgoitibidea

Estarta hau Fraijuan kalean hasten da, eleiza parean eta Zorrotza Kastrexanan amaitzen da, Adiskidetasun auzoaren aurrean. Bere garaian Zorrotzako gunetik goiko lantzarretara zihoan eta bere albo bietan baserriak besterik ez egoan, denboragaz lantegi asko jarri ziren estartan. Duela ez hanbeste bota zebien azkena, armarría ta guztiz. Zorrotzgoitin eraiki zan Zorrotzako dorrea eta XVII menden erdian bota zebien.



Zorroztzako ortuak



BAR VENECIA

Espezialitateak:
Kafea, tortilla, tortilla beteak
eta bestelako pintxoak

Abaro estrata IO

AUPA ATHLETIC



FARMAKOTEGIA
SUSANA
URRITIKOETXEA

Astillero 1. 48013. Zorrotza
Tlño. 94 441 61 46

BAR RUDI



MARADONA

CLARA CAMPOAMOR 2

“Astean bitan euskara klaseak ematen ditut Vallekaseko etxe okupatu batean eta ikasle nahikotxo ditut”

IRATI RODRÍGUEZ

Bizitokia: Vallecas (Madril)

Noiztik: 2016tik

Adina: 24 urte

Lanbidea: Ikasle eta tatuatzailea



Narao Peña eta Zuriñe Vila

Nolatan eta zergatik joan zinen Vallecasera?
Ikasketak bukatzea eta lan egitera etorri nintzen. Cuencan bizitzen egon eta gero Madrilera etortzea erabaki nuen hemen lan aukera handiak daudelako tatuatzaileentzat.

Oso ezberdina da hango bizimodua edo aukozoaren antzekoa da?

Ni Vallecasen bizi naiz. Vallecas, Zorrotza bezala, auzo langilea da. Beraz, ez dira oso ezberdinak euren artean.

Zaila egin zitzaizun bertako lan eta bizi ohituretara moldatzea?

Hona bizitzera etorri nintzenean banituen lagunak hemen, eta gainera Euskal Herriko la-

Orain dela urte bat Irati Madrileko Vallecas auzora joan zen Arte Ederretako eta Diseinu ikasketak amaitzera. Gaur egun, ikasketekin jarraitzeaz gain tatuatzaile moduan lana topatu du eta oso gustura sentitzen da Vallecas auzoko giro eta bertako auzokide mugimenduarekin.

gun batzuk ere Vallekasera etorri ziren, eta oso ondo moldatu naiz.

Zer da handik gehien gustatzen zaizuna? Eta gutxiena?

Gehien gustatzen zaidana hemengo giroa eta jendea dira. Aurretik esan bezala auzo langilea da hau, ezkertiarra, eta hori nabari daiteke hemen dauden kolektibo guztiak ikusita, euren ekintzetan... Auzoan daukagun elkartasuna goraiatzekoa da benetan. Gutxien gustatzen zaidana aldiz, auzoak sufritzen duen kriminalizazioa da. Baina beno, ez dut ezer berria kontatuko, Euskal Herrian jada badakigu nola den hau: zenbat eta leku borrokalaria goa izan, orduan eta errepresio handiagoa jasan behar.

Zorrotzara askotan bueltatzen zara?

Gustatuko litzaidakeena baino gutxiagotan. Asteburu libreren bat daukadanean saiatzen naiz Bilbora joaten. Baina egia da gehienera zer bait ateratzen zaidala eta Zorrotzara joatearena atzeratu behar izaten dudala.

Zerbait sumatu izan duzu faltan?

Faltan ama, lagunak, familia... Nahiz eta beti kontaktuan egon, ez da berdina.

Nolakoa da zure eguneroko bizimodua?

Asteazken zehar goizez unibertsitatera noa eta arratsaldean lan egiten dut. Gero, lanetik irten-dakoan, Krag Magal eta autodefentsa egiten ditut, eta astean bitan Euskara klaseak ematen ditut CSOJ Atalayan, Vallekasen daukagun eskola okupatuan. Ikasle nahikotxo ditut eta oso pozik nago. Azkenik, asteburuetan auzora joaten naiz edota hemen gelditzen naiz, beti daukagu zer edo zer egiteko.

Zein litzateke zure ustez hango ezaugarri-adierazgarriena?

Vallekaseko ezaugarriarik adierazgarriena auzo elkartasuna da. Vallekasen jendeak klase sentimendu handia dauka, horren eraginez auzo oso borrokalaria da. Hamaika gauza egiten dira hemen, adibidez Vallekaseko PAH-k hainbat eraikuntza okupatu ditu jendea bizi ahal izateko, "Red de solidaridad popular"-ek janari bilketak egiten ditu auzokideen artean banatzeko... eta abar.

Duela gutxi, Bukanerosek, Rayo Vallecanoren zaletuen taldeak, deialdia egin zuen jokalaria nazi bat fitxatu nahi zuelako futbol taldearen zuzendaritzak eta auzo osoa batu zen horren



kontra egiteko. Azkenean, guztion artean lortu genuen hori saihestea eta jokalaria hori hona ez etortzea. Hemengo elkartasunari buruz hitz egiterakoan, nire ustez Alfoni buruz hitz egitea ere beharrezkoa da. Alfón hemengo mutil bat da eta gure eskubideen alde manifestatzen zen bitartean, atxilotu eta espetxeratu zuten. Momentu horretan auzoa gelditu egin zen, guztiok ginen Alfón. Egun, artean espetxeraturata egon arren auzoa beti dago berarekin, eta horrelako gauzak benetan dira auzo honetaz harro sentiarazten nautenak.

Eta bukatzeko. Zorrotzara berriro bizitzera bueltatzeko asmoa duzu edo han geratuko zara betiko?

Printzipioz bueltatzea gustatuko litzaidake, baina bizitzaren gorabeheren arabera. Batek daki!

**EUSKAL
PRESO ETA
IHESLARIAK**



ETXERA

**GORA
HERRIA!**

★ *independentzia!*
SOZIALISMOA!



ASKABIDE
kultur elkarte
Zorrotza

MIKEL DEUNA ABESBATZA

Hogeita bost urte doinua ematen

25 urte beteko ditu aurten Mikel Deuna Abesbatzak. Zifra borobila ospatzeko, ekainaren 4an Azoka parkean abesbatzen topaketa bat antolatu dute. Bizkaiko 52 abesbatza ezberdin etorriko dira, guztira 1100 bat pertsona batuko dituen topaketa. Baina topaketa, kontzertuak eta abestearen zaletasunaz gain, urte hauetan taldearen inguruan sortutako giro ona azpimarratzen dute partaide guztiek



Testua: Iratze Pérez

Argazkiak: Aitor Marín eta Mikel Deuna abesbatza

Ez da makala bere hogeitabosgarren urtebetetzea ospatzeko ekainaren 4an Mikel Deuna abesbatzak Zorrotzan montatuko duena! 50 abesbatza baino gehiago batu! "Ahots desberdinetan saikaturik abestuko dugu, eta gero Bilboko Udal Txistu Bandarekin batera kalejira bat egingo dugu auzotik. Horrelako egitaraua prestatzea lan handia da, baina gustu handiz egiten ari gara" azaldu du abesbatzaren sortzaileen taldeko den Martín Vicenciok.

Esan bezala, orain dela hogeitabost urte hasi zen guztia. Txiki Soinua umeen abesbatza izan zen Mikel Deunaren aitzindaria. "Gurea baino 10 bat urte lehenago sortu zen, gaur

egun gure zuzendaria denak eta bere anaiak sortutakoa" gogoratu du taldearen sortzailetarikoa ere baden Anselmo Gutiérrezek. 1991. urteko urria zen Mikel Deuna abesbatza lehenengo pausoak eman zituenean, Zorrotzako jaietan hain zuzen ere: "Mikel Deuna jaietako patroia dugunez, haren izena abesbatzari ematea bururatu zitzaigun". Hurrengo urtean, abesbatzak bere lehenengo kontzertua eman zuen Zorrotzako frontoian. "64 pertsona ginen hasieran eta gaur egun 30 bat lagun gara"

Gaur egun, abesbatzaren batez-besteko adina 65 urtekoa da eta haien kezka nagusia, gazteen artean arrakastarik ez izatea da. "Pertsonaren bat apuntatu da inoiz, baina ez da batere sarria. Agian kaptazioa nola egin hobeto planteatu beharko genuke" adiera-



zi du Vicenciok. Astean birritan entseatzen dute, bi ordu egun bakoitzeko, eta ez da batere erraza guztiok batzea: "bidaia batean ez dagoenak, familia edo bilobak zaindu behar ditu". Hala ere, esfortzu handiak egiten dituzte ahalik eta entsegu gehienetan parte hartzeko, batez ere emanaldiren bat gertu dutenean.

Bizkaiko Abesbatzen Elkarteko kideak dira eta oro har, elkarteak kudeatzen dizkie emaldiak. "Beste abesbatzekin batera leku ezberdinetara goaz eta beti oso giro ona dago". Bizipen polit anitz bildu dituzte hogeitabost urte hauetan. Hainbat antzokitan (Barakaldon, Bilboko Ayalan eta Campos Eliseosen...) abestu dute, baita San Mames futbol zelai zaharrean ere! Baina bakarra nabarmendu behar bada, zalantzarik ez: "Arria-

ga Antzokian eman genuen kontzertua. Oso hunkigarria izan zen bertan abestea, antzez-toki horrek Bilbon irudikatzen duen guztiagatik" Bizkaiatik kanpora ere atera dira: Castro Urdialesen, Burgoseko La Horra herrian, Errioxako Autol herrian, Llanesen eta Madril-en emanak dituzte kontzertuak. "Ederki mugitu gara gu!" baieztatu dute Vicenciok eta Gutiérrezek.

Askotarako ematen dute hogeitabost urtek, baina nabarmenena zer izan den galdetzen diegunean, zalantzarik ez da: taldean sortu den laguntasuna. "Oso dibertigarria izan da. Abesbatzaren kideen arteko giroa beti oso ona izan da eta sartutako kide berriak ere oso ondo moldatu dira. Oso balorazio ona egingo nuke" bukatu du Gutiérrezek. Zorionak eta urte askotarako!

MADNESS KAFETEGIA
Elena eta Javier
Zalbidena estrada, 5 - atzea
ZORROTZA
48013 BILBO

MADNES

Tel. 94 441 62 75

amc
diseinua

Diseinu grafikoa:
irudi korporatiboa • web • komunikazioa ...

Kartelak, Aldizkariak, Katalogoak, Folletoak,
Kamisetak, Opari pertsonalizatuak...

www.amcdiseinua.net

Aurrekontuak eta info +: Tel. 657 732 934 • aitor@amcdiseinua.net

Taberna
AITOR
José eta Juan Carlos

Soka kalea, 11. Zorrotza
Tel. 94 482 07 96

GOTZON MUJICA Komediantea

“Antzerkiaren harra barruan daukat, eta antzerkia egitea beharra da niretzat”

Hitzekin adierazitakoa irakurtzeko aukera izango duzue elkarrizketa honetan, baina hitzekin baino, gorputzarekin adieraztea maite du Gotzonek.

Pailazoa, clown, mimoa, komikoa, antzezlea, txotxongilo egile eta manipulatzailea... Bere ogibidea azaltzeko hitz bat aukeratu behar badu, “komediante” aukeratzen du. Hamazapi urterekin kalean ikusitako mimo batekin lanean hasi zenetik, antzerkiaren harra barruan, barrearen bidez jendearen sentikortasunean eragina izaten jarraitu nahi du bere ogibidean.



Nola hasi zinen antzezpenean?

Oso gaztea nintzenean, Bilboko institutuan antzerki talde bat sortu eta han hasi nintzen. Kallean mimo bat ikusi nuenean, ea berarekin lan egin ahal nuen galdezka hurbildu nintzaion. Elkarrekin hasi ginen lanean eta hor hasi zen nire mimo zaletasuna. Ikasketak hasi nituen...

Komediante moduan soilik aritzen zara profesionalki edo beste ogibiderik ere baduzu?

Hamazazpi urte bete nituenetik, komediantea izan da nire ogibidea. Pailazoa, mimoa, aktorea, txotxongilo egile... Egiten dudan guztia irudikatzen komediante hitza dut gustuko. Zoritxarrez, duela bost urtetik hona beste lan batzuetan ere jardun behar izan dut nire benetakako ogibidea konplementatzeko, krisi larrialdian baitago gure lanbidea.

Noiz jabetu zinen profesionalki honetatik bitziterik zegoela?

Kapela diruz gainezka ikusi nuen lehenengo aldian. Kallean jartzen nintzen Bilboko hainbat tokitan, baina batez ere Plaza Biribilean. Jendeak dirua botatzen zuela konturatzean eta nire gastuak ordaintzeko bezainbeste ateratzen nuela ikusita, orduan jabetu nintzen. Baita egunkarian lehenengo elkarrizketak egin zizkidatenean ere; baina batez ere, profesional handia izan ahal nintzela konturatu nintzen nire amak nire lehenengo trajea josi zidanean. Orain dela urte asko telebista saio batera gonbidatu ninduten eta amak han ikusi ninduenean, orduan onartu zuen semeak ogibide duina zuela eta onarpen gisa, traje hori josi zidan eskuz.

Hasiera ez litzateke erraza izango. Ba al dago clown edo mimo eskolarik Euskal Herrian?

Bereziki ez. Behintzat, nik ezagutzen nituen eskola bakarrak Katalunian zeuden. Egon dira gurera klaseak ematera etorritako mimoak, baina mimo eta pantomima eskolarik ez. Ez dago mimo tradiziozko gurean. Ni hasi nintzenean, mimo bakarra zegoen Bilbon, Epalza kalean lurrin-denda bat zuen agure bat. Ikasketoko beka bat eskatu nuen eta ikasketen lehenengo urtea ordaintzeko Aldundiaren laguntza izan nuen. Bigarreneko ez zidaten eskatutako laguntzarik onartu, baina familiaren laguntzarekin ikasketak bukatu nituen Parisen. Marcel Marceau-ren eskolan sarbide proba egin nuen baina ez



ninduten hartu. Handik ateratzean, Alex Angulo eta César Saratxorekin egin nuen topo. Jacques Lecoq-en eskolan ikasten zebiltzan haiek eta hara joatea gomendatu zidaten. Dossierra utzi eta han ikasketak hasi nituen. Antzerki munduan, Álex Angulo aitabitxi izan nuen. Parisetik bueltan nire antzerki taldea sortu nuen.

Teatro Trapero del Río taldea. Oraindik talde horretan aritzen zara?

Hamabost urte egon ginen izen horrekin lanean, Xilipurdi antzerki taldearekin bat egin genuen arte. La Banda Trapera del Río Barzelonako punk musika taldearekin nahasten gintuzten askotan... Atrezzoan eta muntaian diru gutxi gastatzen duena eta komediante eta publikoaren arteko harremanean funtsa duen antzerkia da "teatro traperoa". Horregatik gustukoa geneukan izena, baina hainbat arazo izanda, Xilipurdi izenarekin jarraitzearen aldeko hautua egin genuen.

Pertsonaia ugari izan eta antzeztu dituzu. Kutxo oso ezaguna dugu Zorrotzan...

Kutxo pailazo bat da, baita nire pertsonairik kuttunena ere. Pailazo bakoitzak bere izen propioa aurkitu eta erabili behar du. Sortzen eta antzeztzen duzun pertsonaia da, eta zure mugimendu era, ahotsa eta keinuak ematen dizkiozu pailazo edo mimo horri. Nire kasuan, pertsonaia hori Kutxo da.



Ikas daiteke pailazo izaten edo jaio behar da?

Ba nire ustez jaio behar da. Formakuntza, teknikak, ikastaroak egin ahal dira, baina pailazoa zure barruan jaio ez bada, barruan sentimendurik ez badago, zaila ikusten dut bizitza profesional oso bat izatea pertsonaia batekin.

Zein da komediante izatearen alderik onena?

Publikoarengan modu batez edo bestez eragina izan dezakezula jabetzea. Antzezenaren bidez jendearen sentikortasunean eragina izatea izugarria da. Mimook eta pailazook beti izan gara gizartearen ispilu. Barre eragin eta olgatzeaz gain, gure tresna nagusiak diren barrea eta sormenaren bidez jendeari nolakoa den irudia islatzen saiatu gara beti. Bakoitzaren ametsak, ideiak, sentipenak eta gure izaera propioan alda daitezkeen aspektu batzuk isladatzen eta hobetzen saiatu izan gara beditanik.

Zenbat denbora behar duzue emanaldi berri bat prestatzeko?

Eszenatokia ordubeteko ikuskizuna eskaintzeko, horraino heldu baino lehen, kobratzen ez den lan handia dago atzetik: testua idatzi eta ikasi, entseguak... Muntaia bati buruz ari garenean, atrezzoak, panpinak, jantziak... behar den guztia guk geuk egiten dugu. Zoritarrez, antzezenaz aparte, beste zereginak izan behar ditugu orain. Horrek are gehiago azteratzen du sormena, eta emanaldi berria prestatzen urte erdia egon gaitezke. Eta dena prest dagoenenan emanaldia hasi baino lehen, gauzak

eraman behar dira, furgoian bildu, montatu... Bukatzean, prozesu bera baina alderantziz... Jendeak ulertu behar du ikuskizuna ikusteko ordaintzen denean, prozesu hori osoa ordaindu behar dela.

Emanaldietan jendearen jarrerari erreparatzeko aukera izaten duzu?

Gertatzen den guztiaz ohartzen gara. Hasieratik oso harreman estua sortzen da publikoarekiko eta etengabeko feedbacka egoten da. Prestatu duzun gag-a ikustean publikoa barrez badago, pertsona horrekiko konexioa nabaritzen da. Konexio hori galtzen bada, lana txarto doan seinalea da. Nola galtzen da? Adibidez, zarata gehiegi badago, edo zer esanik ez, eta azken bolada honetan nahi baino gehiagotan gertatu zaiguna: gurasoak mobila eskuan edo haien artean hitz egiten ikustean... Oso zaila da umeekin konektatzea eta gurasoak arretra galduta ikustea oso mingarria da guretzat.

Umeentzako ekitaldi ugari egiten dituzu. Umea heldua baino publiko zailagoa al da?

Ez dut uste, zintzoagoak baitira. Umeek ikuskizuna gustukoa ez badute, berehala konturatuko zara, kar, kar! Eta alderantziz ere, gustukoa badute, berehala parte hartzen saiatuko dira eta haien aurpegietan nabaria da. Helduak isilagoak dira, baina umeek ez dakite itxura egiten. Dena den, publiko bakarra delakoan gaude. Pailazo ikuskizuna eskaintzeak ez du esan nahi soilik umeentzat denik. Egia da ezberdin zuzentzen garela umeengana edo helduengana

na, baina adin guztietakoek gozatzeko ikuski-
zunak prestatzen saiatzen gara eta gehienetan
lortu ere egiten dugulakoan nago.

Kalea edo aretoa? Zer nahiago duzu?

Baldintza bereziak ditu bakoitzak, eta horren
arabera sortzen ditugu emanaldiak. Antzokian
edota aretoan emanaldia itxiagoa da, jendea-
ren arreta eszenatokian dago, dena bere to-
kian... eta hori eskertzekoa da. Kalean kontro-
laezinak diren baldintza asko daude, edozein
momentutan ustekabe batek inprobisazio han-
dia eskatuko du eta honek freskotasun gehia-
go emango dio ikuskitzulari... Ez daukat prefe-
rentziarik egia esan, baina gehienetan kalean
egiten dugu lan.

Beldur eszenikoa dioten hori... Ba al duzu ho- rrelakorik? Kudeatzeko trikimailurik al da?

Jakin dezazuen guztiok profesionalok ere ba-
dugula beldur eszenikoa! Emanaldia zelan ate-
rako den beldur hori izaten dugu antzezp-
en guztietan. Eta eskerrak! Tentsio mailari eutsi
behar zaio gauzak bere onean ateratzeko.

Lanbide honi noizbait uzteari pentsatu al duzu?

Bada, noizean behin pentsatu izan dut, bai. Ba-
tez ere, lanik ez dagoenean, edo askotan lan
baldintzak motelak izaten direnean... Baina an-
tzerkiaren harra barruan izanda, beti antzerkia
egiteko beharra sentituko dut. Oso beharrez-
koa den eginkizun soziala betetzen du antzer-
kiak gaur egun nire ustez. Horren jabe naiz eta
lehen aipatu dudan bezala, jendearen sentikor-
tasunean eragina izatearen boterea deigarria
da oso.



LABURREAN

“Txikitan etorkizuneko ogibideaz aritzean, zaldia izan nahi nuela nioen”

Gustuko dituzun 3 komiko?

Oso injustua litzateke hiru solik
aukeratzea. Marcel Marceau, Peter
Sellers, Jack Lemon, Luis de Funes,
Cantinflas, eta asko eta asko...

Komediante ez bazina zer izango zinateke?

Txikitan zaldia izan nahi nuen, kar, kar!
Etxean ezin nintzela zaldia izan esaten
zidatenean, gidaria aukeratzen nuen.

Gustura antzeztuko zenukeen papera?

Egindako guztien artean Kutxo da nire
gustukoena. Pailazo eta mimoa da, eta
nire betiko bidelaguna.

Gustura antzeztuko zenukeen papera?

Gehienetan ez gara pertsonaiekin
identifikatzen, baina oro har, pertsonai
maltzurak ez ditut gustukoak.

630 290 802 • xilipurdi@gmail.com

CAFÉ LAS NAVAS

Pintxo
gozoak
egunero

Zorrotza Kastrexana
errepidea 4

Regalos
Omega
oparidenda

Frai Juan 19
Omega galeriak
Zorrotza
94 482 03 66

www.omegadetalles.com

El
10 de
Fray Juan

Pintxo askotarikoak, hamburgesak eta sandwichak
Bazkariak eta afixiak (erreserbatu behar da)
Ardo onak, kombinatu gozoak, Futbola, musika...

Fray Juan, 10 - Zorrotza - 48013 Bilbao

Kalabazin- biribilkia



Osagaiak:

Kalabazin bat, baratxuri-atal bat, 100 gramo ganba, 100 gramo gula.

Kalabazina orritan moztu behar da. Behin plantxa berotuta, kalabazina jarri apur batean, eta buelta eman. Zabaldu plater baten gainean. Baratxuria xehatu eta frijitu. Gehitu ganbak eta gulak eta gatza gustura. Nahastea kalabazinaren punta batean jarri eta biribildu. Ogi xerra baten gainean jarri eta perexil edo tipulin xehatu apur batekin atundu. On egin!

Zailtasun maila	Erraza
------------------------	--------

Prezioa: 1,40 €

JAI ALAI TABERNA



Duela 14 urte hartu zuten Leilak eta Juanjok Jai Alai tabernaren kudeaketa. Betiko taberna, giro ona eta hurbila.

Ostiraleri kazolatxoak, sandwich, hanburgesak eta plater konbinatuak, eta igandero txibierro gozo-gozoak.

Futbol partida guztiak pantaila handian ikusteko aukera oso giro onean.

Igandetik ostegunera gaueko 11k arte irekita, eta ostiral eta larunbatero goizeko ordu 1era arte.

Abaro estrata, 12

48013, Zorrotza

Telefonoa: 94 490 12 59



*Etxeko berezitasuna: haragiak eta arrainak
Itsaski-haztegi propioa
Eguneko menua eta menu hitzartua*

Clara Campoamor, 2
48013 Zorrotza


Tel. 94 499 01 30
www.mesonluna.es

**AUTO ESKOLA
KAIKU**



Zorrotza Kastrexana, 1
Tlfno: 94 427 88 10

Jai-Alai
kafetegia



Abaro estrata, 12
94 490 12 59



Doinua:

Izarren hautsa

Gure zirkuan dena algará

pailazo eta artista

arineketan doa tropela

ta egin gabe irrista

astebetean malko-irriak

horiek bai zoro zoragarriak!

eguzki edo tximista

egunez egun aurrera doa

iturriaren zirrista

Iruñean ez da ezer amaitzen

izan behar malabarista

eguneroko borroka horretan

euskara entzun dadin benetan

hamaika ekilibrista

lainotu ez dakigun bista

Asier Urkiza



Egiazko pertsonaiek eta gertakariak biltzen dute Kirmen Uriberen hirugarren eleberriko kontakizuna: Karmele Urresti eta Txomin Letamendiren askatasun egarria eta erresistentzia bipila. Gerra galdua zelarik Euskal Herrian, Karmele erizain ondarrutarrak eta Txomin musikari bilbotarrak Eresoinka taldean ezagutu zuten elkar, Paristik gertu, Belloy jauregian; eta han topo egin zuten aspaldiko lagun batzuek ere, Antonio Gezala margolariak eta Manu Sota idazleak. Alemaniarrak Frantzia okupatu baino lehen Letamendi-Urresti senar-emazteek ihes egin zuten Caracasa, baina

Agirre lehendakariaren agindu batek atzera bueltan ekarri zituen Bilbora 1943an, zerbitzu sekretuetan faxismoaren aurka borrokatuz. Familia baten bizipenak jasorik, ametsen eta ezintasunen kronika nobelatua duzu hau, XX. mendeko gure historiaren atal berezi bat.



Hibakusha: Oihu isilak

(Gor diskak) 2016



Iruñeatik datorkigun talde honek euren bigarren diska aurkeztu zuten iazko Durangoko Azokan. "Oihu isilak" izenburupean, Silviaren ahots melodiko eta indartsua beste instrumentuen potentziarekin nahastuz benetan soinu metaliko eta gordina lortu dute. Emakume eta gizonezkoen koruak oreka ematen diote, baina abeslari printzipala da protagonismoa hartzen duena ezbairik gabe.

"Dunak" izan zen lan berri honen lehenengo aurrerapena eta bertan lehen esandako energia hori suma daiteke. Abesti batzuetan teklaturen laguntza izan dute, atmosfera erakargarriak sortuz. "Arritmiaz bizi" itsaskorra (Sarean aurki dezakezue zuzeneko irudiez osatutako bideoklipa) "Irina" edota "Zure islada" ere horren adibide garbiak dira. Grabaketa "Sex to be" estudioetan burutu dute Koma edota El Drogas taldeetan ibilitako Brigi Duque soinu teknikaria izan delarik. Nahasketak eta masterizazioa metal gogorren aditua den Erik Monsonis-ek egin ditu Mexiko Hirian daukan estudioan, emaitza potentia lortuta dudarik gabe.

alBoka
taberna

Soka kalea, 5
Zorrotza
48013 BILBO

Tfno. 94 499 29 43

 **CaixaBank**

Zeu zara izarra

Abaro estrata, 5
48013 Zorrotza (Bilbo)
Tel. 94 459 00 90
www.caixabank.es

ROCKET TAVERN



Plater konbinatuak,
hanburgesak,
oilasko erreak...

FRAI JUAN, 8 • Tel 94 655 68 98

Zure iritzia jakin nahi dugu. Bidaliguzu zure artikulua zmorrotz@gmail.com helbide elektronikora gaiaren laukian "iritzia" jarrita. Eskerrik asko!



Dirua egon badago

Badirudi FEVE geltokia eta tren-pasabidea lurperatzea diru arazo bat baino ez dela. Baina bada hori benetako arrazoia edo borondate politikoan eta proiektuen lehentasunean dago kokka?

2011ko azaroan, auzokideok eskaini zitzaizkigun 4 proiektuen artean bat aukeratu genuen auzo batzar jendetsu batean, geltokia eta bi tren-pasabideak lurperatzea, eta Zazpi Landa eta erdigunea ondoen lotzen zuen proiektua, alegia. Egia da proiektu hori ez zela batere merkea, 50 milioi inguru, baina, duda barik, aproposena zen auzo-integrazioaren ikuspuntutik.

6 urte luze igaro dira, eta ordutik hona bi auzokide hil dira Zorrotzako trenbideetan. Ezbehar triste, latz eta ulertezina, diru kontu hutsarengatik Gurmesinda eta Mari Angeles gure arteik horrela joan izana. Behin eta berriro esaten digute dirua dela arazo bakarra. Nondik demontre aterako dituzte Espainiako Gobernuak, Jaurilaritzak, Aldundiak eta Udalak 50 milioi horiek? Seguru nago horrelako diru kopuruak ez direla erraz ateratzen. Angel Villalba, FEVEko arduradun nagusia 30 milioi euro jartzeko prest azaldu zen 2011n. Euskal instituzioetatik ez zen, ordea, inolako proposamenik jaso.

Baina azkenaldian oso argi ikusten ari gara Eusko Jaurilaritzaren kutxan diru hori eta askoz ere askoz gehiago dutela, eta ez dutela gure inguruan, Bilbo Handian, eraikiko diren beste trenbide-proiektu batzuetan inbertitzeko arazorik. Hauek dira azken egunetan prentsan agertu diren albisteak:



- Bilboko tranbiaren eratzunaren itxiera.
- Bilboko tranbiaren luzapena Atxuritik Boletaraino.
- Hegoaldeko Trenbideko Saihesbidearen sarbidea Bilbora eta lurperatzea Olabeagan.
- Abiadura Handiko Trenbidearen sarbide lurperatua Bilbo erdian.

4 proiektu hauek gauzatzeko 500 milioi euro baino gehiago beharko dira. Zorrotzako lurperatzea baino askoz ere garestiago aterako da hori guztia. Zer esan nahi du horrek? Arazoa ez dela dirua, dirua egon badago eta. Benetako arazoa borondate politikoa eta proiektuen lehentasuna dela. Bilbon eta Bizkaian EAJ/PSE gobernauk ditugu, Gasteizen EAJ/PSE PPrent laguntzarekin, eta badirudi Madrilen PPrent gobernauk EAJren laguntza lortuko duela aurrekontuak babesteko. Era-kunde guztietan, alderdi berak. Non dago arazoa beraz?

Arazoa oso argi dago, Zorrotzako auzoa ez dagoela alderdi eta instituzio horien lehentasunen artean. Kito. Gure esku dago egoera honi buelta ematea. Bihur dezagun guretzako lehentasuna dena politikarien lehentasun. Horretarako, nik behintzat, bide bakarra eza gutzen dut: mobilizazioa. Egingo dugu?

Raúl Méndez (@urigoitia).

Folklore

Folklore erraietaraino sartuta daukagu euskaldunok. Ez bakarrik euskaldunok, noski, folklokeria herri gutxitu guztion ezaugarria baita, minorizazio prozesuaren parte, finean.

Folklore esan eta beharbada irakurleari txapelak eta txistuak etorriko zaizkio gogora, baina eritz gehiagoko kontzeptua da folklorea.

Euskararekiko jarreretan, adibidez, naberia da folkloreak morrontza. Folklore da "Kaixo" esan eta alboko euskaldunarekin

erdara jatorrean hitz egitea. Folklore da Korrikaren lekukoa eskuan duzula, alboarekin erdara hutsez mintzatzea. Folklore da euskal kulturarik ez kontsumitzea, euskal mundu erreferentzial oso bat ematen dizun horri uko egitea; erdal munduak berehala jan zaitzan. Folklore da hamar hitzetik zortzi erdaraz bota eta euskaraz zabiltzala pentsatzea.

Hala ere, ez gutxitan esan izan didate euskara bera dela folklore; sarri entzun behar izan dugu euskararen neurritz kanpoko erabilera batek jendea herri mugimenduetatik uxatu dezakeela. Askok ez dakite, antza, euskara komunikazio tresna unibertsala izateaz gain, zapaltzen gaituzten bi estatu horiekin deskonektatzeko biderik azkarrena ere badela. Euskarak salbatuko gaituela folklore hutsalaren atzaparretatik.

Asier Urkiza.



...Imajinatzen duzu auzoa merkataritzarik gabe?

**ESKAINTZARik ONENA
ZORROTZAtik
IRTEN BARIK**

**Berton
kontsumitu**



♀

Hainbatetan, emakumeak aipatzerakoan, gizonekin daukaten harremanaren arabera egiten da: emazteak, andregaiak, alabak, idazkariak...

biltzea eta emakumezkoentzako “neska” edo gaztetasuna adierazi nahi duten atzizkiak erabiltzean datza, emakumezkoen adingabetasunaren irudia transmititzen baitu;

“Bi gizonak eta hiru neskek osatzen dute taldea” esan beharrean, “Bi gizonak eta hiru emakumeak osatzen dute taldea” esan beharko genukeenean (pareko adina dutela suposatzen baitugu). Konponbide erraza dauka honek!! Duda-tzen egotekotan... gizonetako zein emakumezkoei trataera berdina ezarri baino ez duqu!

Txorkoa (erdaraz, alcorque), zuhaitzaren oinean egiten den zuloari deritzo eta bere funtsa, batik bat, euri ura atxikitzea da. Hiriguneetan txorkoek altzairuzko estalkiak daramatzate, inor ez dadin zulora jauzi. Baina Zorroztgoitibidetik igaroz gero, bat baino gehiago biluzik ikus daiteke, eta hilabete baino gehiago daramate horrela. Noiz arte?



XXI. Zorrotzako ipuin lehiaketa

Non: Zorrotzako Auzo Etxea, Institutua eta aek euskaltegia

info gehiago: aek euskaltegia (Zalbidea 7)

SARIAK

1. SARIA: Sopuerta
abenturarako
sarrerak

2. SARIA: Jolas euskalduna

1. SARIA: 100 euroko kultur bonoa

2. SARIA: Jolas euskalduna

XI. Denok batera programa prest

Denok Batera, 2007an Zorrotzako Taldeen Koordinakundearen gizarte-hezkuntza batzordetik sortutako ideia da. "Zorrotza bizirik 2007/2017" plangintzan sartuta, Gure Lurrak, Zorrotzako GHETak eta Kale Dor Kai-kok Auzo Elkartearekin izan zuten bileratik etorkizuneko proiektuaren lehenengo urratsak definitu zituzten:

- Erakunde ofizialen arreta auzoan ipintzea, auzokideei entzun eta hauen ondoezari erantzuna emateko.
- Auzoaren ekintza publikotik kanpo gertatzen ziren lekuak berreskuratzea.
- Elkarbizitza ekintzak hedatzea, auzoaren ezinegon egoera hobetzeko.

Hiru urrats hauetatik, proiektu berria sortu zen, bi helburu nagusitan ezarrita:

- Kirol eta jolas jardueren bidez auzoko adingabekoen artean kultura-artekotasuna bultzatzea.
- Gatazkak egoten ziren lekuak, elkarbizitza bizikidetasun-espazioak bihurtzea.

Halaber, gutxienez urtero hauetako bi ekintza antolatzea erabaki zen: Alde batetik, auzoko bi parketan 12 urte baino gutxiagoentzat munduko jolasei buruzko jarduerak antolatzea. Bestetik, 12 eta 18 urte bi-



Denok Batera!
kulturalteko XI. futbito txapelketa
XI campeonato intercultural de futbito
EKAINAREN 1ETIK 16RA -DEL 1 AL 16 DE JUNIO



partidos en horario de tarde 17:00 - 19:00
ordu bitartean izango dira partidukoak
equipos de 5-8
pertsoneko taldeak
2 CATEGORÍAS 2 MAILA
NACIDOS ENTRE LOS AÑOS 1998-2005
URTE BITARTEAN JAQUIAK

Apuntate izena eman hasta el 19 de mayo
Zorrotzako GAZTEGUNEAK 94 497 14 57
EISER Zorrotza 94 685 26 84- 655 747 033

tartekoentzat auzoko zelai publikoetan futbol lehiaketa ospatzea.

Gaur egun, Zorrotzako Gazteguneak eta Zorrotzako GHET-ak Denok Batera proiektuarekin aurrera jarraitzen dute. Aurten, ekainean, hamaikagarren edizioa ospatuko dugu, Zorrotza Gozatu eta Bizi egitarauaren barruan.

Hemendik, izena eman nahi duten gazteak Gaztegunera edo Zorrotzako EISera gerturatara animatzen ditugu, baita boluntario moduan lagundu nahi duten pertsona guztiak ere.



ARIN GRAF, S.L.
INPRENTA

Zalbidea estrata, 13-2.
48013 ZORROTZA - Bilbo
Tel/Fax: 94 441 38 23
info@aringraf.com



Restaurante Arsenio

Tfno. 94 497 10 03
Hermógenes Rojo, 6
48013 BILBAO

Pintxo askotarikoak
Menu bereziak (enkarnez)
Eguneko menua



Ainara

Ahal dudan guztietan
hartzen dut parte.
Betidanik asko gustatu
zait ekimen hau,
euskararen alde jende
asko batzen delako



Jose

Beti lanean egon
naizenez, hau da parte
hartzen dudan
lehenengo urtea.
Sortzen den laguntasun
giroa aipatuko nuke

Korrika

Aurrekoetan parte
hartu duzu?
Zer da Korrikak
sortzen duen girotik
gehien gustatzen
zaizuna?

Ibai Barrios, Naroa Peña
eta Iratze Pérez



Kristian

Bai, beti. Korrika
ekimen izugarria da.
Nire ustez, hoberena
jendearen partehartze
masiboa da. Auzo zein
herri ezberdinak batzea
helburu berdin honen
inguruan oso
hunkigarria da



Fito

Ahal dudan guztietan, bai,
baina lanaren arabera.
Euskararen inguruan
sortzen den giro alaia,
lasterketa bera... Korrikaren
inguruan dagoen
guztia itzela da.



Aizkoa

Bai, ahal dudan guztietan.
Euskararen defentsarako
giroa. Ni umea izanda
debekaturik zegoen
euskaraz ikastea.

TABERNA INDARRA



Abaro estrata, 10



VÍA gráfica

viagraficazorrotza@gmail.com

Disenya



ZINE ZORROTZA 2017

CENTRO MUNICIPAL
ZORROTZA UDALTEGIA
MAIATZA / MAYO
EGUENETAN 19:30 JUEVES

- 4: 19:30 / ZINEBIKLUB: **UMOREZKO FILM LABURREN ERAKUSKETA** / MUESTRA DE CORTOMETRAJES DE HUMOR (BILINDUEI)
 11: 19:30 / ZINEBIKLUB: **"NOSOTRAS, MUJERES DE EUSKALDUNA"**
 17: 18:00 / FANT UMEENTZAT (A PARTIR DE 3 AÑOS): **LOTTE 2 ILARGIKO HARRIAK** (EUSKARAZI)
 18: 19:30 / FANT XXIII: **NAZIOARTEKO FILM LABUR FANTASTIKOAK** / CORTOMETRAJES FANTÁSTICOS INTERNACIONALES (VOSE)
 25: 19:30 / FANT XXIII: **EUSKAL FILM LABUR FANTASTIKOAK** / CORTOMETRAJES FANTÁSTICOS VASCOS
 26: 18:00 / FANT GAZTETXOENTZAT (A PARTIR DE 9 AÑOS): **OKER** (EUSKARAZI)





VIII

MAIATZAK 4-6 MAYO

CLOWN

ZORROTZA 2017



4 (EGUENA / JUEVES)

ZORROTZAKO LIBURUTEGIA / BIBLIOTECA DE ZORROTZA

18:00 TALANGANA. "Larri Pompien" (público familiar). Euskal Herria

ZORROTZAKO UDALTEGIA / CENTRO MUNICIPAL DE ZORROTZA

19:30 ZINEBIKLUB

Umorezko film laburren erakusketa / Muestra de cortometrajes de humor

5 (BARIKUA / VIERNES)

AZOKA PARKER / PARQUE DEL FERIAL

18:30 ROJO TELÓN. "Haiek naiz / Soy ellas" (público adulto). Euskal Herria

19:30 TEATRO a la BOINA. "I'm a real artist" (público adulto). Euskal Herria

6 (ZAPATUA / SÁBADO)

AZOKA PARKER / PARQUE DEL FERIAL

18:30 CIRCOLABILE. "O como cacahuete" (público familiar). Italia

19:30 CIA. CRISTINA SOLE. "Wet Floor" (público familiar). Kataluña

ANTOLATZAILEA / ORGANIZA

Bilbao
UDALA
AYUNTAMIENTO



www.kulturabarrutik.eus

 KulturaBarrutik
 BilbaoKultura

LAGUNTZAILEAK / COLABORAN


ARRIGORRIAGA
UDALA - AYUNTAMIENTO

 Bibliotekak

ZINEBI